

# Eskerrak emuteko (idatziz)



- Eskerrikasko



- Eskerrik asko



Zela fan da Aloña Mendin partidua?  
(Idatzi eta esan)



- Aloñak hiru bat  
irabazi dau.



- Aloñak hiru **eta**  
bat irabazi dau.



# Zenbat da?



- Zortzi berrogei  
(8,40)



- Zortzi **eta** berrogei  
(8,40)



# Zertan jokatuko dogu?



- Eskubaloira jokatuko  
dogu!



- Eskubaloian jokatuko  
dogu!

\***Oharra:** Jokuari izena ekintza errepikakorren batek emuten xaonian **-ka** atzizkixa ebali izan da:(ikusi-makusika ibilli, pote-poteka ibilli, gorde-gordeka ibilli).



# Kontuz!



- Jo dost.



- Jo nau!



# Esan...



- Esan xatei /  
Esan notsain



- Esan dostet /  
Esan nosten



# Eztakot...



- Eztakot dirua /  
Eztakot astixa /  
Eztakot gosia



- Eztakot dirurik /  
Eztakot astirik /  
Eztakot goserik



# Diaz / Badiaz / Diazenak



Geure hizkerian aldaera bat da  
(giza-moltzuan edo auzuan araberakua).

- Nunguak diaz lagun honeik?
- Agerketan badiaz, abixau e!
- Araotzekuak diazenak be esango daue zeozer!



# Jakin eta kontuan euki!



- Esku artian zumo  
ona zeukatzun /  
Fan zan astian ez  
geukagun lanik.



- Esku artian zumo  
ona zeukan /  
Fan zan astian ez  
geukan lanik.



# Si...



- Si eztozu egin ezebe /  
Si gaur inbiu bizkotxua!



- Eztozu ezer egin-eta! /  
Gaur inbiu bizkotxua,  
baña!





# Atzo emundakuaz...



- Atzo patxo bat emun dotsuten.



- Atzo patxo bat emun notsun.



# Atzo ikusittakuaz...



- Atzo Mikelek ikusi nauen mendixan.



- Atzo Mikelek ikusi nindduen mendixan.



# Argi...



- Zapatillak jantzi naiz. /  
Mosua pinttau naiz.



- Ni jantzi naiz, baina  
zapatillak jantzi dittut. /  
Ni pinttau naiz, baina  
mosua pinttau dot.



# Xaten VS Notsan



- Esan xaten fateko eta  
enostan kasurik egin.



- Esan notsan fateko  
eta enostan kasurik  
egin.

\***Orduan:** Gaur esan xat, baina atzo esan notsan.



# Leike... zer?



- Emun leikedostazu papela?



- Emun zeike papela? /  
Emungo dostazu papela?

